

Galdera

Galdera argia da: “Estatu independente gisa eratzea onartzen duzu?”. Ez da euskal mendebalderri egindako itauna, bistan da. Baina Eskozian ez dute zortzi lerroko galderarik erabiltzen, denek argi dutena esateko. Independentziak zenbat jarraitzaile eta zenbat aurkari dituen da gakoa, ez besterik. Eta ez dut zalantzarik zer-nolako trauma litzatekeen Londresen Eskozia bereiztea. Irlandako batasuna Londresen eragin handirik gabe gerta liteke, baina zer Erresuma Batu osatu Ingalaterra ia bakarrik geratzen delarik (barkatu galestarrok)?

Oso leku gutxitan daude European antzeko gatazkan: Erresuma Batuan, Belgikan eta Espainian. Mendebaldeko gainontzeko herrialdeetan, edo oso gutxi dira nazio txikiak (Alemania, Eskandinavia) edo, herri gutxitu asko izan arren, auziak oso atzean daude agenda politikoan (Frantzia, Italia). Ekialdeko herrialde gehienek ere badituzte gutxiengoak baina aldameneko estatuan nagusi izanik, muga aldaketa erabat tabua da, dozena erdi estatutan bizi diren hungariarrentzat adibidez.

Sinesgaitza da britainiarren jarrera, polemika, zarata eta eztabaidatik ahalik urrunen dauden tesietan dauden gatazka iberikoen aldean. Eskoziako independentistek Katalunian edo EAeko Legebiltzarrean abertzaleek



INIGO AZKONA

baino askoz boto portzentaje txikiagoa izanik, ez dute ezkututzen zein helburu duten. Eta oinarri demokratikoa inork ez du zalantzan jartzen, gehiengoak gura duena beteko da. Jendea limurtu eta independentziara erakarriz gero, bikain, eta osterantzean, lanean jarraitu (ez, ordea, Galizian edo Nafarroan bezala perfil abertzalea jaisten). Aurkariak, laboristak nahiz kontserbadoreak, beste horrenbeste. Independentistak deabrutu beharrean, estatu bakarrean batuta jarraitzea mila aldiz komenigarriagoa dela aldarrikatzen. Independentziak ekar ditzakeen galerez berbetan, noski, beldurra-
ren estrategia da beti independentziaren aurkako arma eraginkorrena. Askatasunak beti dakarren beldurra da, batzuen-tzat zirrara dena izua da besteentzat. Baina hala behar du eztabaidak.

Gurean berriz, tankeen mehatxua modan ez dagoenez, bide hobea aurkitu dute: epaitegiak hiru botereetatik bat izanik, demokrazia zuzenaren muga demokratiko bihurtzen da. Eskozian parametro argietan daukate eztabaida, independentzia gura duzu ala ez duzu gura. Hemen zarata da nagusi. Diskurtso zirkularrak eta indefinizioa gailentzen dira, eta alderdi abertzaleek ataka gaindiezina daukate urruneko asmo ederren eta berehalako politiken artean. Eta beti, txikira jolasten, bistan da. ■

« Eskozian parametro argietan

daukate eztabaida,

independentzia

gura duzu ala ez duzu gura.

» Hemen zarata da nagusi

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Herritik dator notizia. Bertan, demokrazia estetika jantzi dute berriz. Bertako biztan-

leriaren iritziaren aurka, galdeketa-rik gabe herritarrek hautatu alkate eta zinegotziak udaletxetik kanpo eman dituzte. Aspaldiko asmoa gauzatzen ari dira. Galtzaileak nagusi demokraziaren ederraren izenean. Ibarretzek aurkeztu galdeketa-
ren alde eta aurka daudena, herritarren erabakiaren aurkako agertu zaizkigu. Agintea eman ez dien jendarte-
a zigortzea erabaki dute. Nola kristo sinetsi bestalde, herritarrei hitza eskatu eta ondoren emaitza errespetatua izanen denik, holako estrategia-
ren bultzatzaileen aldetik baldin badator?

Pasaiako

Gizartearen zatiketa bultzatzen ari dira, batasunaren izenean. Eta beren nahia lortu ez duten herrietan, bestelako trikimailuak asma-

tzen ari dira zatiketari sakontzeko. Zernahi. Hernanin, Aristimuño *Pana* zenaren oroigarri oro nahi lukete lurperatu, bere herriak gogoan edukitzeko agerian ematera erabaki zuenean. Lehen ere, herri honen parte batek aski frogatua du zigorrari aurre egitearen kirolean aditua dela eskarmentuz, eta irabazitako dominak ezkututzen bazaizkio ere alzheimerak ez duela jo. Biktimak nahi dituzte desagerrarazi. Enbarazu egiten diete. Haien lekukotasun-
ek inkomodatzen dituzte. Jaioko dira berriak, gu gara Euskal Herriak. ■